

SOKA SALTOAN

<p>SALTOKA SALTOKA</p> <p>Saltoka, saltoka nabil ni gustora, Salto ta salto bat sartu arte. Sartu dadila ta biok elkarrekin salto ta salto bat irten arte. Eman ezazu buelta eta irten zaitez</p> <p>DO RE MI</p> <p>Do, re, mi, ipurdi haundi; Fa, sol, la, ikusi zaiola. Mendiola, Mendiola txoriak kaka ein diola. Mendiola, Mendiola txoriak kaka ein diola.</p> <p>KANTAUROIKA ITSASOAN</p> <p>Kantauriko itsasoan olatuak goraka. Itsasontzi bat irten da ur handien artean. Hemendik hara Handik hona. Hemendik hara Handik hona.</p> <p>GURAIZEAK</p> <p>Nik guraizeak dauzkat Ireki eta itxi Lurra ikutu Zerua ikutu Belauniko jarri Eta irten kanpora</p> <p>KONGITO KONGITO</p> <p>Kongito kongito sartu sokara, kongito kongito ukitu lurra, kongito kongito ukitu zerua, kongito kongito hanka batekin, kongito kongito bestearekin, kongito kongito orain biekin, kongito kongito irten sokatik.</p>	<p>MARIA ANDRESA(RE)N</p> <p>Mari Andresan Mari Andresan Korotza. Zazpi libra ta Zazpi libra ta Bost ontza. Harek eitten deu Harek eitten deu Demasa. Epel-epel Lodi-lodi Punta motza; Epel-epel Lodi-lodi Punta motza.</p> <p>BAT ETA BI</p> <p>Bat eta bi Sorgina etorri , soka kendu, zulora eraman, afaldu gabe, ohera joan.</p> <p>HIRIBURUAK</p> <p>Herrialde euskaldunak, munduan ezagunak Hiriburu esango ditugunak Iruñea Nafarroa Garaian Gasteiz Araban Bilbo Bilbo Bizkaian Donostia Gipuzkoan Baiona Lapurdin Donibane Garazi Behe Nafarroan Maule Lextarre Xiberuan Guztiak euskaldunak! Guztiak euskaldunak!</p> <p>ARDOA, OGIA ETA GATZA</p> <p>Ardoa, Ogia, Ta gatza, Gatza, gatza, gatza,</p>
--	--